



Segmentua

TMtab teknologian azken aurrerapenak dituen tresna berritzailea da. Beraz, TMtab-en erabiltzaileak, teknologiarren erabilpenaren jakintza izan behar dute, hau da, tablet edo mugikor baten erabilpena kontrolatu behar dute. Baina, erabiltzeko ez du konplexutasunik, nahiko xumea da. Gainera, onlineko dendan erosteko ez dute arazorik izango. Hasieran, Euskal probintzietan salduko dugu fisikoki produktua, estatura jaurti baino lehen. Horrela, produktu honek izango duen inpaktuaren arabera eta lortuko dituen erosleen arabera, TMtab merkatu haundiago batera bideratuko dugu, jakina, arrakasta izaten badu. Baina gure web orrian eta onlineko Amazon dendan ere salgai egongo da. Munduan %92ko populazioak mugikorra erabiltzen du eta gehienek interneta daukate. Beraz, honek era batera edo bestera, TMtabek merkatuan sartzeko ez duela zailtasunik izango esan dezakegu. Espainian, interneta duten pertsonen %80a 34 eta 64 urtekoak dira. Merkatuak aurrerapen asko jaso ditu azken urteetan, eta saltzeko eta eroste prozesua hobetu du.

Gure helburu-publikoa 35 eta 65 urte inguruko pertsonak dira, adin honetako pertsonak baitira gure produktua erosteko interesa izan dezaketena. Beraien hozkailuei aurrerapen puntu bat eman diezaioke eta. Gure produktua hozkailuen osagarria da, hau da, hozkailuaren funtzioak hobetzen ditu eta funtzionalismoa haunditzen du. Kontuan izan behar da ere, kontsumitzaileek diru sarrera altuak izan behar dituztela, edozein pertsona ezin duela erosi teknologia berritzaile hau. Ez dago gizarte sektore konkretu bati zuzendua, baina diru-sarrera altuak izan behar dituzte, ez da ohikoa TMtab eskura diru gutxi duten pertsonen erostea, beste behar batzuk dituztelako, funtsezko beharrak betetzeko edo burutzeko zailtasun gehiago izan ditzaketete eta.

Gaur egun, fitness munduak fama handia hartu du eta modan jarri da pertsonen beraien gorputzak zaintzea eta dieta osasuntsu bat egitea. Mundu honen merkaturia berria da eta potentzia handia izan dezake etorkizunean. Espainia Europar Batasuneko bigarrena da, obesitatea duten pertsonen kantitatearen arabera. Eta Espainiaren populazioaren %60 ak obesitatea edo gehiegizko pisua du 2018. urtean. Herrialde garatuetan, gainera, jende gehiagok ditu pisu arazoak. Eta munduan %30a obesoa da. Baina hau ez da pisuarekiko arazo bat, baizik eta osasunak jasaten dituen arazoak dira kontuan hartu behar direnak, ez delako estetika kontu huts bat besterik. Obeso egoteak, gaixotasun

asko ekar ditzake, eta pertsonetikiko hilkortasuna haunditzen du. Osasuna garrantzitsua denez eta hau hobetzeak ospe haundia duenez, pertsona obesoen eta pisua galdu nahi dutenek, beraien gorputza estetikoago eta erakargarriago egiteko edozein baliabideen laguntza onartuko dute. Eta gure produktuak hau ahalbideratzen duenez, merkatuan indarra izango du. Hau jakin eta gero, gure produktua erosiko duten pertsonen prototipoa elikadurari garrantzia emango diete. Honi gehitu behar zaio urte hauekin, pertsonen osasuna okerrera doala, beraz, pertsona hauek beraien gorputza gainerakoek baino gehiago zaindu behar dute. Horregatik, gomendagarria da dieta osasuntsua izatea eta gure produktuak hauen bizitza hobetzen du errezeta osasuntsuak eskaintzen dituelako. Eta ezaugarri hau da gure produktua besteengan ezberdintzen duena. Hau da, beste hozkailu inteligenteek, mugikorrek bezala deiak egin ditzakete, hala telebistaren antzera pelikulak ikus ditzakezu eta beste hainbat ekintza egin ditzakezu. Gure produktua aldiz, hozkailuan jartzeko tablet bat da, gure elikaduraren ohiturak hobetzeko lagunduko duena.